

Bixente Serrano Izko

Artopila behintzat

Denek batera hilarazi eta berez hil zen” erran beharko?

Itxuroso jaio zen orain zortzi urte eremu nafar baikor hura. Hiri kontzeptu berri bat ematen zuen, egoki integratua berezko paisaiarekin: mendi-mazelek, opakuek, eguterek, lautadek, ibaialdeek, sorok, parkeek, auzoek, kolore anitzetako landareek eta tankera desberdinetako eraikinek osaturiko multzo berri bat, ia idilikoa, proiektu baten maketa ezin erakargarriagoa irudi.

Tamalez, maketa hutsean gelditu zen proiektua. Elkarri mokoka hasi ziren laster diseinatzaileak. Ibaialdeetako estetikaren zaleak izan ziren lehenak projektutik ateratzen, beraiek erdi nahita, bertzeek erdi egozirik. Mendi malkarrak zein hariztiak lehenesten zituztenek kolore berde uniformedunagoa eman nahi izan zioten eremu berriari, baina hauek ere laster hasi ziren norgehiagoka maketa berregokitze-rakoan. Harizti zaleak izan ziren hurrengoak projektutik irteten. Mendi-maldetako paisaiaren zaleek, nagusi berauek handik hona, malkarrak soro, parke eta muino suabe eta amultsu, baina betiere berde-berde bihurtuko zituztela agindu zuten, hasierako maketaren izpiritua akituko ez zutela. Gutxiago jada hasierako aniztasunetik, baina bazirudien zertxobait gordetzen zuela jaio orduko estilo prometagarri hartatik, eta ausaz egunen batean berreskuragarri izanen zela oraindik ere hura. Edonola ere, proiektuaren heriotza igartzen joaten zen pausoz pauso, maketak erakutsitakoa gauzatu ordez, osagaiak galdu ahala.

Bezero asko inguratu ziren projektura hasiera-hasieratik. Gainera, maketak aurkezten zuen egitasmoak bazuen bertze erakargarritasun bat: diseinatzaileek ez ezik, bezeroek ere izanen omen zutela lekuri parte



JOSU SANTESTEBAN

hartzeko hura gauzatu orduan. Eta parte hartu zuten. Hori bai, diseinatzaileek uzten zieten neurrian bakarrik. Beraienak eta bortz egin zituzten etengabe diseinatzaile lehiakideen arteko bideak eta zubiak eraikitzen, hasierako maketa gauzatu ahal zedin. Alferrikako lana lehiakideak auzolanean jartze aldera; ez hain alferra, ordea, agonian dagoen proiektuari bizi-itxura eman eta esperantza guztiak ez iraungitze.

Alta, honez gero, bertze proiektu eta maketa berde-berde bat, berdetasun zale guztiak bildu nahi dituen, aurkeztu da, bertze bulego diseinatzaile batek eginga, eta hemen hizpide dugun aurrekoa oztopotzat baizik ikusten ez duena. Berde bainoago oraindik berdotza agertu arren, honetara bildu ziren harizti zaleak, eta orain berri ñirñir kilikagarria, eutsiezin izateraino kilikagarria ere, egin bide die muino berde

zaleei. Ataka estuan daude, hortaz, lehen projektura inguraturiko hainbat bezero, kolore anitzetako eremuaren zale horiek. Eta urrats bat aurrera ematea erabaki dute: berde guztiak batean bildu beharrean, berdetik kolore gehiagotara zabaltzeko beharra ikusten temati, euren bulego diseinatzaile propioa irekitzera deliberatu dira, lehen

proiektua eta haren alde gelditzen diren indarrak bizkortzeko asmoz. Zaila, baina merituzko asmoa, inondik ere.

Ez dakit. Bistan dena, maketa hura ez igeltsuz, ez plastilina ez zuten eraiki hasierako diseinatzaileek, ogi-ore bihurtu gabeko irinaz baizik. Ez dakit legamia injektatzeko gai izanen diren Zabaltzen estudio berri gogotsukoak eta ez dut nire burua bulego arautu batean sarturik ikusten. Baina, gaurko bi diseinu hauetako baten bezero izatekotan eta kolore anitzak agintzen zituen maketa lehenetsi nahian ni ere, argi daukat: ogirik ezean, artopila behintzat. ■

Ez dakit legamia injektatzeko gai izanen diren Zabaltzen estudio berri gogotsukoak eta ez dut nire burua bulego arautu batean sarturik ikusten. Baina, gaurko bi diseinu hauetako baten bezero izatekotan eta kolore anitzak agintzen zituen maketa lehenetsi nahian ni ere, argi daukat: ogirik ezean, artopila behintzat